

MARTIN UGALDE historialari eta idazleak, Caracaseko erbesteraldian Jose Antonio Agirre lehendakariari entzundakoa gogoratu du, Karlos Santamaria aipatu diogunean. «Hitzaldi batean, 1952 edo 1955. urtearen inguruan, Euskal Herrian gizon handi bat zegoela esan zuen Agirrek,


Euskal Herriaren aldeko lanean gogor ari zena, eta konfidantza handia zuela gizon harengan: Karlos Santamaria zen».

Baina Karlos Santamariak euskal kulturaren alde egindako lehen lanak gerra aurretikoak izan zirela gogorarazi digu, eta Jose Aristimuño 'Aitzol'ekin batera Euzko Pizkundean parte hartu zuela. «Gaur egun, Pizkunda izena erabiltzen ari diren politikoez ez dakite ondo zer izan zen hura. Horretaz inork ezer baldin badaki, Santamaria da, baina Santamaria ez dago asmo horietan, noski. Izan ere, momentu politiko bat baliatu nahi izan dutela iruditzen zait, eta hori salatze modukoa dela uste dut».

Ugaldek, gutunen bidez eta postaz elkarri igorritako liburuen bidez izan zituen Santamariarekiko lehen hartuemanak, artean erbestean zegoela.

«1964ean nire 'Unamuno y el vasco' bidali nion, Unamunoren gaian oso interesatua zegoelako orduan.

Eta harez gero, gutun asko aldatu genituen bion artean». Azkenik, Santamariaren apaltasuna aipatu digu Ugaldek. «Ez zaio inoiz behar bezala aitortu euskal kulturaren alde egindako lana, eta orain eskaini behar dizkioten omenaldiak guztiz mereziak dituela iruditzen zait». ●



Manuel Lekuona Sariak:

Manuel Lekuona 1983

Odón Apraiz 1984

Jorge de Riezu 1985

Andrés Mañarikua 1986

Justo Gárate 1987

Manuel Laborde 1988

Eugène Goihenetxe 1989

Gerardo López de Gereñu 1990


FRANCISCO YARZA apezak oso gaztetandik izan du adiskide Karlos Santamaria, ikasle garaietatik. «Buru argi eta bihotz handiko gaztea zen, bere lanak ondo eramaten zekiena, aldamenekoari laguntasunik ukatu gabe». Lanerako gogo bizia agertu omen zuen Santamariak gazte-gaztetatik, «eta lanak zuzendu eta aurrera jarraitzeko buruko argitasuna, jolasak eta beste gazteen gogoak alde batera utzi eta lanean saiatzeko ardura».

Santamariak Donostian antolatutako solasaldietan Britainia Handia, Alemania, Danimarca, Espainia, Frantzia, Italia eta Ameriketako hainbat lekutako pentsalariak izan zirela gogoratzen du Yarzak, «gauza asko eskainiaz». Santamariak hartutako lan horietaz gain, beste bat du bereziki gogoan Yarzak: 'Aita Labaka' langile ikastetxea.

«Zenbat gorabehera, zenbat estuasun... baina zenbat poz eta alaitasun gauzak bere ondorioan ikusita». «Karlosekin ibili direnak bakar-bakarrik dakite lan horietan zenbat eta zenbat neke eta izerdi utzi behar izan ziren, asmo bati zuzen eta bikain jarraitzeko». ●

Karlos Santamariaren presentzia euskal kulturaren uste den baina askoz ere garrantzikoagoa izan da. Eta ez bakarrik berak bere eskuz idatzi duenagatik, baizik eta batez ere bere presentzia hutsak denotatzen edo adierazten zuenagatik, eta duenagatik. Euskara 'baserritarren' hizkuntza bezala hartzen zen garaian, Karlos Santamaria bezalako intelektual batek euskaraz idaztea ez zen debaldekoa izan gerraosteko belaunaldiarentzat.

Bestalde, batipat Jakinen, Ze-



JOAN MARI TORREALDAI

ruko Argian eta EUSKALDUNON EGUNKARIA n eman ditu bere euskarazko lanak, eta hori ez da inentziorik gabeko aukera Karlos Santamariarengan. ●

PIARRES XARRITON irakasleak Frantziako Unibertsitateak antolatzen zituen 'Semaines sociales' izeneko ekitaldien edizio batean ezagutu zuen Carlos Santamaria, 40en hamarkadaren amaiera aldean. Gero, Santamariak berak Donostian antolatutako solasaldietan

ere izan zen. Azumendik bezalaxe, Xarritonek elkarrizketa hauek garrantzi handia zutela adierazi digu. «Maritain Espainiako apeztegiatiko liburutetan heretikotzat jotzen zuten, eta horrelako pentsalari baten ideiak Espainian sartzea ausartzia handia zen garai hartan». 'Jakín' aldizkariaren inguruko bileretan ikusi zuten gero elkar. Santamariak euskaraz emandako lehen hitzaldia ere gogoan du Xarritonek. «Orduan ere Baionako Aste Kulturalak sortzea asmatu genuen, 1971 urtearen inguruan, Santamaria gonbidatu genuen, eta euskaraz aritu zen. Hasieran beldur pixka bat izan bazuen ere, ederki asmatu zuen Santamariak hizketan». Unibertsitateari buruz hitzegin omen zuen Santamariak hitzaldi hartan. Santamariak azalduko ideiak izan ziren, Xarritonen eritziz, 1973an Donibane Lohizunen lehen edizioa bizi izan zuen Udako Euskal Unibertsitatearen abiapuntua: «Santamariari zor diogu ideia hori», esan digu. ●

TXILLARDEGI idazleak oso gazterik ezagutu zuen Karlos Santamaria, Jose Miguel Zumalaberekin batera irakasle izan bait zuen 1946an, Donostiako Centro de Estudios Superiores ikastetxean. «Guk bagenekien abertzalea zela, eta hitzegiten genuen berarekin, baina sekretua gordetzeko eskatzen zigan, garai hartan horrelako kontuekin kontuz ibili beharra bait zegoen».

Frankismoaren menpean bizitzea egokitu zitzaion Santamariari. «Hori gainditu ezinezko oztopoa izan zitzaion gauza askotarako. Zerbait egiteko askatsuna iritsi zitzaionerako, beranduegi ere izan zitekeen». Santamariaren kasua ez da, hala ere, kasu isolatua Txillardegiren ustez, beste askok ere oztopo eta traba bera izan bait zuten, Telesforo Monzonek adibidez. Bestalde, «Santamaria oso garrantzi handikoa izan da, zubia izan delako. Adinez, hezkuntzaz eta abarrez, belaunaldi zaharrenarekin lotutako gizona zen, baina beti oso bekoki zabalekoa izan da, jende gaztearekin aritu izan da lanean, eta gazte gorde izan du bere burua horri esker». ●

Eta gainera, aipatu komunikabideok babestu, bultzatu eta maitatu egiten ditu Karlos Santamariak. Oroitzapen pertsonaletarako abagunerik badago, gogoratu nahi nuke Karlos Santamariak Jakini eta niri neuri, 1968 bueltan, eman zigan laguntza ezin estimagarriagoa: bera genuen Jakineko Redakzio-Burua eta batez ere bera genuen gazteok kultur gidaria. Neurri on batean, Rikardo Arregirekin batera, berari zor dio Jakinek urte haietan eta gero izan duen arrakasta. ●